

KONTRATAZIO BALDINTZA OROKORRAK
SAN SEBASTIAN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SA

1. Informazio orokorra eta identifikazioa

1.1. Baldintza orokorren xedea

Kontratazio Baldintza Orokor hauek (aurrerantzean "**BALDINTZA OROKORRAK**") ezartzen dituzte **SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SAK** (aurrerantzean "**DONOSTIA TURISMO**") jarraian adierazitako salmenta kanalak erabilia (aurrerantzean "**SALMENTA KANALAK**") interesa dutenen esku (aurrerantzean "**ERABILTZAILEAK**") jartzen dituen zerbitzuen kontratazioa arautzen duten zehaztapenak eta baldintzak. Hauek dira erabiltzen dituen salmenta kanalak:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoan jendearentzat zabalik dauden presentziatzko salmenta puntuak (aurrerantzean "**PRESENTZIAZKO SALMENTA PUNTUAK**"); eta
- www.sansebastianturismoa.eus/es domeinuaren bitartez ERABILTZAILEENTZAT irisgarria den web-orria (aurrerantzean "**WEBGUNEA**").

BALDINTZA OROKOR hauek zehazki arautuko dituzte jarraian aipatzen diren eta DONOSTIA TURISMOK adierazitako SALMENTA KANALEN bidez merkaturatzen dituen produktuen eta zerbitzuen kontratazioa ERABILTZAILEAREN aldetik:

- "**JARDUERA PROPIOETARAKO TIKETAK**": DONOSTIA TURISMOK sustatzaile gisa antolatzen dituen eta bere erantzukizunpean SALMENTA KANALEN bidez merkaturatzen dituen jardueretara joateko edo horietan parte hartzeko ERABILTZAILEEK erosten dituzten tiketak dira.
- "**HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETAK**": Hirugarren erakundeek sustatzaile gisa (aurrerantzean "**SUSTATZAILEA**"), beren erantzukizunpean, antolatzen dituzten jardueretara joateko edo horietan parte hartzeko ERABILTZAILEEK eskuratzen dituzten tiketak dira. DONOSTIA TURISMOK merkaturatu egiten ditu SALMENTA KANALEN bidez SUSTATZAILEAREN IZENEAN, eta ez du horiek antolatzen parte hartzen.

Aurrerantzean "**TIKETAK**" izango dira bai JARDUERA PROPIOETARAKO TIKETAK bai HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETAK.

1.2. DONOSTIA TURISMOREN identifikazio-datuak

- Sozietatearen izena: SAN SEBASTIAN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA SA
- Helbidea: Boulevard kalea 8, 20003 PK - Donostia (Gipuzkoa)
- IFK: A-20188884



**Donostia
San Sebastián**

- Erregistroko datuak: Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan erregistratua: 1.479 liburukia, 81 folioa, SS-9.471 orrialdea.
- Telf.: 943 48 11 66
- Faxe: 943 48 11 72
- Helbide elektronikoa: sansebastianturismoa@donostia.eus

1.3. BALDINTZA OROKORREN balioa eta aldaketa

PRESENTZIAZKO SALMENTA PUNTUETAN TIKETAK erosteak esan nahi du ERABILTZAILEAK berariaz eta erreparorik gabe onartzen dituela BALDINTZA OROKORRAK.

TIKETAK WEBGUNEAREN bidez erosi ahal izateko, ERABILTZAILEAK BALDINTZA OROKORRAK irakurri eta berariaz eta erreparorik gabe onartu beharko ditu erosketa-prozesuan horretarako ezarritako sistema teknikoaren bidez, eta erosketa ezingo da amaitu horiek onartu gabe.

BALDINTZA OROKOR hauek osatuko dira kasu bakoitzean zerbitzu jakin bakoitzerako ezarri ahal izango diren baldintza zehatzekin. Baldintza zehatz horiek ere PRESENTZIAZKO SALMENTA PUNTUETAN eta WEBGUNEAN egongo dira ERABILTZAILEENTZAT eskuragarri (aurrerantzean "**BALDINTZA ZEHATZAK**").

DONOSTIA TURISMOK BALDINTZA OROKOR hauek, eta kasu bakoitzean aplikatzekoak diren BALDINTZA ZEHATZAK, aldatzeko eskubidea du. Indarrean dauden erosketa egiten den unean ERABILTZAILEAK PRESENTZIAZKO SALMENTA PUNTUETAN eta WEBGUNEAN eskuragarri dituenak izango dira. Edonola ere, aldaketa horiek ez dute atzeraeraginezko ondorerik izango aurretik kontratatutako zerbitzuetan.

1.4. ERABILTZAILEAREN gaitasuna

DONOSTIA TURISMOK eskainitako zerbitzuak partikular gisa eta beren izenean eta eskubide osoz jarduten duten pertsona fisikoei zuzenduta daude, eta esparru horretatik kanpora geratzen dira pertsona juridikoak, bai eta bere jarduera profesionalaren baitan TIKETAK gerora merkaturatzeko xedearekin erosi nahi dituzten pertsona fisikoak ere.

Era berean, Espainiako legediaren arabera adinez nagusiak diren eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisikoek eta Kode Zibilean ezarritako baldintzei jarraituz emantzipatuta dauden adingabeek bakarrik egin ahal izango dute erosketa SALMENTA KANALEN bidez.

BALDINTZA OROKORRAK onartzen dituenean, ERABILTZAILEAK adierazten du eta bermatzen du aipatutako baldintzei jarraituz jarduteko eta kontratatzeko legezko gaitasuna duela.

1.5. Hizkuntza

Zerbitzuak WEBGUNEAREN bidez kontratatzen badira, ERABILTZAILEAREN eta DONOSTIA TURISMOKEN arteko kontratua euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez formalizatu ahal izango da, eta ERABILTZAILEAK hizkuntza horietan izango ditu eskuragarri bai BALDINTZA OROKORRAK bai BALDINTZA ZEHATZAK, halakorik dagoenean.



1.6. Zerbitzu-eskaintzaren eremu geografikoa

Zerbitzuak WEBGUNEAREN bidez kontratatzen badira, TIKETAK lurralde-mugarik gabe eskuratu ahal izango dira.

2. TIKETAK PRESENTZIAZKO SALMENTA PUNTUETAN erostea

2.1. ERABILTZAILEAREN erantzukizuna

- TIKETAK leku lehorrean, bero-iturrietatik aldentuta eta plastikoekin eta eremu magnetikoekin kontakturik izan gabe gordeko dira.

2.2. DONOSTIA TURISMOAREN erantzukizuna

- HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETAK saldu ondoren zerbitzuan egindako aldaketak (hala nola, egun-aldaketak, ezeztatzeak, eta abar) dagokion SUSTATZAILEAREN ardura eta erantzukizun eksklusiboa izango dira.
- DONOSTIA TURISMO ez da TIKETAK galdu edo lapurtu izanaren erantzulea izango.

2.3. Atzera egiteko eskubidea, aldaketak eta itzultzeak

2.3.1. Atzera egiteko eskubidea

Kontratu batean atzera egiteko eskubidea kontsumitzaileak edo erabiltzaileak kontratua eraginik gabe uzteko duen ahalmena da. Jakinarazpena eskubide hori gauzatzeko ezarritako epean egingo zaio beste aldeari, baina ez du erabakia arrazoitzen beharrik eta inolako zigorrik izango. Azken finean, eskaera justifikatu beharrik gabe itzultzeko aukera da.

Azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten duenaren, 103.l) artikuluari jarraituz (aurrerantzean "**KEDLO**"), atzera egiteko eskubidea ez da aplikagarria izango TIKETEN erosketan.

2.3.2. Aldaketak eta itzultzeak

Aurreko atalean ezarritakoa alde batera utzita, hauxe da PRESENTZIAZKO SALMENTA PUNTUETAN erosten diren TIKETAK aldatu eta itzultzeko DONOSTIA TURISMOK ezarritako duen politika:

- Behin TIKETA erosiz gero, ez da aldatuko eta ez da zenbatekoa itzuliko, indarrean dagoen legedian aurreikusitako arrazoiengatik izan ezik.

Eragin horietarako, jasota utziko da TIKETAREN xede den jarduerara joaterik ez izatea ez dela TIKETAREN zenbatekoa itzultzeko arrazoia izango.

- HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETEN kasuan, DONOSTIA TURISMOK, banatzaile gisa, horiek ezeztatu eta horien balioa itzuli ahal izango du SUSTATZAILEAK hala egiteko berariaz agintzen badio bakarrik, esate baterako, jarduera bertan behera utzi delako, data aldatu delako, eta abar.
- TIKETAREN zenbatekoa itzultzeko prozesua PRESENTZIAZKO edozein SALMENTA PUNTUTAN tramitatuko da.

3. TIKETAK WEBGUNEAREN bidez erostea

3.1. Kontratatzeko/erosteko prozedura

ERABILTZAILEAK erosi nahi duen/dituen zerbitzua/ak aukeratu beharko du/ditu WEBGUNEAN, eta bakoitzaren zenbat unitate erosi nahi dituen adieraziko du.

Zerbitzu bakoitza aukeratzean, horietako bakoitzaren informazio xehatua agertuko da, eta berariaz adieraziko dira eskatutako unitate-kopurua, unitate bakoitzaren prezioa eta eskatutako unitate guztien azken prezioa (BEZ sartuta), bai eta horien jatorrizko prezioan ezarri ahal izan diren deskontuak ere, halakorik balego. Prezio horietan ez daude sartuta bidaltze-gastuak, horiek aplikagarriak direnean.

Behin erosi nahi diren zerbitzu guztiak aukeratu ondoren, ERABILTZAILEAK SARTU SASKIAN linka sakatu behar du, eta ondoren EROSI, eta hortik "ESKAERA AMAITU" atalera bideratuko du sistemak.

"Eskaera amaitu" atalean izango ditu ERABILTZAILEAK (i) harremanetarako datuak betetzeko inprimaki bat eta (ii) aukeratutako zerbitzuen laburpena, eta bertan berariaz adieraziko dira zenbat unitate eskatu dituen, prezio unitarioa eta eskatutako unitate guztien prezio osoa (BEZ sartuta), bai eta ERABILTZAILEAK adierazitako helbidera bidaltzeko gastuak ere, horiek aplikagarriak badira.

Hasitako erosketa eta kontratazioa amaitzeko, ERABILTZAILEAK BALDINTZA OROKORRAK onartu beharko ditu, horretarako bere esku jarritako nahitaezko check-boxa erabiliko du eta "Eskaera amaitu" atalean bere esku jarritako ordainketa-sistemetako bat aukeratu beharko du.

BALDINTZA OROKORRAK onartu ondoren eta ordainketa ERABILTZAILEAK aukeratutako sistemaren bidez baliozkotu ondoren, kontratazioa amaitutzat emango da. Tramite horrek ERABILTZAILEAREN eta DONOSTIA TURISMOREN artean egindako kontratuaren artxibo elektronikoa sortuko du. Agiri hori DONOSTIA TURISMOREN Bezeroaren Arretarako Zerbitzuaren bidez eskuratu ahal izango du ERABILTZAILEAK. Erosketa amaituta, esleitutako eskaera-zenbakia erakutsiko dio WEBGUNEAK ERABILTZAILEARI, eta erosketaren egiaztapena ERABILTZAILEAK adierazitako helbide elektronikora bidaliko da gehienez ere 24 orduko epean.



**Donostia
San Sebastián**

Erosketaren egiaztapena WEBGUNEAREN bitartez PDF formatuan jaisteko ere jarriko da ERABILTZAILEAREN eskura kontratazio-prozedura amaitzen denean, baldin eta hori egitea teknikoki posible bada.

Mezu hori ezarritako epean jasoko ez balitz, sarean izandako behin-behineko komunikazio-arazo baten edo ERABILTZAILEAK emandako helbide elektronikoa egondako akats baten ondorio izan daiteke. Hala izango balitz, komenigarria litzateke DONOSTIA TURISMOAREN Bezeroaren Arretarako Zerbitzuarekin harremanetan jartzea (shopturismoa@donostia.eus).

Erosketaren egiaztapena jasotzen duenean ERABILTZAILEAK datuetan akatsen bat ikusiko balu, DONOSTIA TURISMOAREN Bezeroaren Arretarako Zerbitzuarekin harremanetan jar daiteke (shopturismoa@donostia.eus).

3.2 Ordaintzeko moduak

ERABILTZAILEAK kreditu edo zordunketa txartel baten bidez (VISA eta MASTERCARD) ordain dezake erosketari. Aukeratutako ordainketa-moduak sortutako gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

Kreditu edo zordunketa txartelaren bidez egindako ordainketa guztiak finantza-erakunde baten ordainketa-pasabide seguruaren bidez egingo dira. Honek txartelaren datuak enkriptatzen ditu. Ordainketa-sistemari ahalik eta segurtasunik handiena emateko, DONOSTIA TURISMOK ordainketa-moduetako bere hornitzaileen ordainketa seguruko sistemak erabiltzen ditu. Alde horretatik, ordainketari buruzko datu konfidentzialak zuzenean eta enkriptatuta (SSL) transmititzen dira dagokion finantza-erakundera.

Ordainketa adierazitako pasabidearen bidez egitean, sistema txartela jaulki duen finantza-erakundearekin harremanetan jarriko da, eta baimentze-kode pertsonal baten bidez eragiketa baimentzeko eskatuko dio. Eragiketa kreditu-txartela jaulki duen finantza-erakundeak baimentze-kode hori berresten badu bakarrik gauzatuko da. Berresten ez badu, transakzioa baztertu egingo da.

KEDLOren 112. artikuluan xedatutakoaren arabera, erosketari baten zenbatekoa iruzurrez edo bidegabeki kobratu bada ordainketa-txartelaren zenbakia erabiliz, txartelaren titularra den ERABILTZAILEAK kargua berehala bertan behera uztea eska dezake. Kasu horretan, dagozkion zordunketa eta kobratze eragiketak ahalik eta azkarren egingo dira DONOSTIA TURISMOAREN eta txartelaren titularra den ERABILTZAILEAREN kontuetan.

Nolanahi ere, erosketari txartelaren titularra den ERABILTZAILEAK egin badu eta dirua itzultzeko eskaria ez bada legeak ezarritako baldintzen arabera atzera egiteko eskubidea gauzatzearen ondorio, ERABILTZAILEAK atzera egitearen ondorioz sortutako kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio DONOSTIA TURISMORI.

3.2. Faktura

Egindako kontratazioari/erosketari dagokion/dagozkion faktura/ak eskuratzeko, ERABILTZAILEAK idatziz egin beharko du eskaera honako helbide elektronikoa: shopturismoa@donostia.eus.

3.3. TIKETAK

entregatzea

Aurreko atalean aipatutako erosketaren egiaztapenak ordezkatu du tiketa, eta (i) inprimatu egin beharko da edo (ii) eskaeraren egiaztapenaren e-posta erakutsi beharko da ERABILTZAILEARI dagokion jardueran sartzen uzteko edo jardueran parte hartzen uzteko.

3.4. Bermea eta erantzukizuna mugatzea

3.4.1. JARDUERA PROPIOETARAKO TIKETAK

ERABILTZAILEAK JARDUERA PROPIOETARAKO TIKETAK WEBGUNEAREN bidez erosten dituzenean, DONOSTIA TURISMOK bermatu beharko du dagozkion jarduerak gauzatu direla eta, gainera, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren lege-eskakizunak beteko direla, eta ERABILTZAILEAREN erreklamazioak DONOSTIA TURISMORI helaraziko zaizkio.

Nolanahi ere, DONOSTIA TURISMOK ezin du bermatu jarduera horien edukia ERABILTZAILEAREN gustukoa izango denik eta/edo ERABILTZAILEAK espero duena izango denik, WEBGUNEAN delako jarduerari buruz eskuragarri dagoen informazio zehatzaz haraindi.

3.4.2. HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETAK

Aurrean adierazitakoari jarraituz, HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETAK merkaturatzeari dagokionez DONOSTIA TURISMOREN eginkizun bakarra izango da ERABILTZAILEARI horiek erosteko bidea ematea, eta SUSTATZAILEAREN izenean eta kontura horien banaketaz arduratzea.

Alde horretatik, eta HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETEI dagokienez, DONOSTIA TURISMOK ez du parte hartzen jarduera horiek antolatzen, eta, horrenbestez, uko egiten dio horien antolaketarekin lotutako erantzukizun orori. ERABILTZAILEAK, beraz, hala dagokionean, SUSTATZAILEARI helaraziko dizkio erreklamazioak.

3.5. Atzera egiteko eskubidea, aldaketak eta itzultzeak

3.5.1. Atzera egiteko eskubidea

KEDLOren 103.l) artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, atzera egiteko eskubidea ez da aplikatuko TIKETEN erosketan.

3.5.2. Ezeztatzeak eta itzultzeak

Aurreko atalean ezarritakoa alde batera utzita, DONOSTIA TURISMOK aldaketak eta itzultzeak egiteko honako politika ezartzen du WEBGUNEAREN bidez erosten diren TIKETETARAKO:

- Behin erosketa eginda, TIKETAREN xede den jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte egin ahal izango dira ezeztapenak.



- Ezeztapenak beti Bezeroaren Arretarako Zerbitzuaren bitartez egingo dira (helbide elektronikoa: shopturismoa@donostia.eus), eta bertatik egiaztatuko da ezeztapena egin dela eta tramitatuko dira dagozkion itzultzeak.

4. SALMENTA KANAL ezberdinen bidez erositako TIKETEI buruzko xedapen bateratuak

4.1. Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak

ERABILTZAILEEK beren iradokizunak, kexak eta erreklamazioak bidali diezaizkiokete DONOSTIA TURISMORI. Horretarako, mezu elektronikoko bat bidali beharko dute DONOSTIA TURISMOAREN Bezeroaren Arretarako Zerbitzura (shopturismoa@donostia.eus).

4.2. Pribatutasun politika

4.2.1.- JARDUERA PROPIOETARAKO TIKETAK erostearekin erlazionatutako datuen tratamendua

JARDUERA PROPIOETAKO TIKETAK erosteko prozesuan ERABILTZAILEAK emandako datu pertsonalak DO-NOSTIA TURISMOAK –Tratamenduaren Arduradun– tratatuko ditu, DONOSTIAKO UDALAREN –Tratamenduaren Erantzule– kontura jardunez. Jarduera propioetako tiketen fakturazioa Donostia Turismoaren kontura egingo da, eta bera izango da Tratamenduaren Erantzule.

Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, "DBEO") jasotzen den informazio-eskubidea babestuz, hemen dituzu DONOSTIAKO UDALA erantzule den tratamenduei buruzko informazioa:

Tratamenduaren Erantzulearen identitatea eta kontaktu-datuak

Erantzulea: DONOSTIAKO UDALA

Posta-helbidea: UdalInfo zerbitzua, Ijentea kalea, 1, PK 20003 - Donostia

Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu-datuak: dbo@donostia.eus

Datuen tratamenduaren xedea

JARDUERA PROPIOEN TIKETAK erosteko prozesuan ERABILTZAILEAK emandako datu pertsonalak biltzearen eta tratatzearen helburuak hauek dira: SALMENTA-KANAL desberdinen bitartez ERA-BILTZAILEAK egindako erosketa kudeatzea eta, ERABILTZAILEAK baimendu izan balu, kanal arruntan edo elektronikoen bitartez DONOSTIA TURISMOAREN eta/edo hark eskainitako zerbitzuen informazioa aldizka igortzea.

Datuak kontserbatzeko epeak edo irizpideak

JARDUERA PROPIOEN TIKETAK erosteko ERABILTZAILEAK emandako datu pertsonalak legez aplikatu daitezkeen xedapenek ezarritako epeetan gordeko dira, 6 urtez gehienez. DONOSTIAKO TURISMOARI eta/edo hark eskainitako zerbitzuei buruzko aldizkako informazioa igortzeko tratatutako datuak gordeta egongo dira ERABILTZAILEAK datu horiek ezabatzeko eskatu

edo datuak tratatuak izateko baimena ezeztatu artean.

Tratamenduaren zilegitasuna

Erosketa-prozesuan ERABILTZAILEAK emandako datuen tratamenduari zilegitasuna ematen dion oinarri juridikoa, berez, salerosketa-kontratuaren exekuzioa da. Bere aldetik, DONOSTIA TURIS-MOARI eta/edo hark eskainitako zerbitzuei buruzko informazioa ERABILTZAILEARI igortzeko datuen tratamenduaren zilegitasunak, baita jarduera propioetako edo hirugarrenen jardueretako tiketei –shop.sansebastianturismo.com atarian eskuratuei– lotutako zerbitzuekiko gogobetetze-maila ezagutzeko inkestetan oinarritutako tratamenduaren zilegitasunak ere ERABILTZAILEAREN baimena dute oinarri, pribatutasun-politika hau eta BALDINTZA OROKORRAK onartzeko laukia markatzean adierazitakoa.

Erosketa egiteko eskuragarri dauden formularioetan izartxo batekin (*) seinalatuta ageri diren eremuetan nahitaezkoa izango da ERABILTZAILEAREN datu pertsonalak jakinaraz-tea. Nahitaezkoz hartzen diren eremu horiek bete ez izanak edo datuak oker eman izanak era-gotzi egingo dio DONOSTIA TURISMOARI ERABILTZAILEAREN eskaera kudeatzea eta hark eskatu-tako JARDUERA PROPIOETAKO TIKETEN salerosketa behar bezala amaitzea.

Datuen hartzaileak

ERABILTZAILEAK erosketa-prozesuan emandako datuak ez zaizkie hirugarrenei emango, legezko betebeharra dagoenean izan ezik.

ERABILTZAILEAREN eskubideak

ERABILTZAILEAK eskubidea du konfirmazioa jasotzeko DONOSTIA TURISMOA, DONOSTIAKO UDA-LAREN kontura, bere datu pertsonalak tratatzen ari den ala ez jakiteko, baita datu okerrak zuzen-tzeko eskaera egiteko ere edo, hala badagokio, haiek ezabatzea eskatzeko, besteren artean, datu horiek jaso ziren xedeetarako jadanik behar ez direnean.

Gainera, zirkunstantzia jakin batzuetan, ERABILTZAILEAK bere datuen tratamendua mugatzeko eska dezake; kasu horretan DONOSTIA TURISMOAK, DONOSTIAKO UDALAREN kontura, erreklama-mazioak egiteko edo defendatzeko bakarrik gordeko ditu. Era berean, zirkunstantzia jakin batzuetan eta bere egoera partikularrari lotutako arrazoiengatik, ERABILTZAILEAK uko egin ahal izango dio bere datu pertsonalen tratamenduari; kasu horretan, DONOSTIA TURISMOAK, DONOSTIAKO UDALAREN kontura, datu horiek tratatzeari utziko dio, legeak derrigortu egiten duen kasuetan izan ezik, edo erreklamazio posibleak egin edo defendatzeko.

ERABILTZAILEAREN datuen tratamendua automatizatua denean eta baimenean edo kontratu ba-ten exekuzioan oinarrituta baldin badago, eskubidea izango du DONOSTIA TURISMOARI, DONOSTIAKO UDALAREN kontura, eman dizkion datu pertsonalak jasotzeko, formatu egituratu batean, erabilera arruntekoan eta irakurketa mekanikokoan, baita datu horiek beste arduradun bati emateko ere.

Azkenik, ERABILTZAILEAREN datuen tratamendua bere baimenean oinarrituta dagoenean, ERA-BILTZAILEAK eskubidea izango du baimena edozein unetan kentzeko, kendu aurretik baimenean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunean eraginik izango ez badu ere.

Adierazitako eskubideetatik edozein erabiltzeko, ERABILTZAILEA idatziz zuzendu ahal izango zaio tratamenduaren erantzuleari: DONOSTIAKO

UDALA – Ijentea kalea, 1 – 20003 Donostia.

Era berean, ERABILTZAILEAK eskubidea izango du Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean erreklamazio bat aurkezteko – bereziki bere eskubideak erabiltzean gogobeteta geratu ez dene-an– posta-helbide honetara idatzi bat bidaliz: Beato Tomás de Zumárraga kalea, 71 - 3, PK
01008 Vitoria-Gasteiz (informazio gehiagorako www.avpd.euskadi.eus)

4.2.2.- HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETAK erostearekin erlazionatutako datuen tratamendua

HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETAK erostean ERABILTZAILEAK ematen dituen datu pertsonalak DONOSTIA TURISMOK tratatuko ditu, tratamendu-eragilea den aldetik, eta SUSTATZAILEAREN IZENEAN jardungo du. SUSTATZAILEA izango da tratamenduaren arduraduna.

Ondorioz, eta DBEOn ezarritako informatzeko eskubidearen eraginetarako, ERABILTZAILEARI jakinaraziko zaio HIRUGARRENEN JARDUERETARAKO TIKETAK erosteko prozesuan emandako datuen tratamenduaren arduraduna SUSTATZAILEA izango dela, eta bere identitatea kasu bakoitzean bide egokitik adieraziko dela. Datuen tratamendu horri aplikatzekoak izango zaizkio aurreko atalean aurreikusitako tratamenduaren helburua eta legitimazioa, eta datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero SUSTATZAILEARI eskatu beharko dio.

Kasu horietan, ERABILTZAILEAK bere datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta transferitzeko eskubideak gauzatu ahal izango ditu, bai eta, DBEOn aurreikusitako zehaztapenei eta baldintzei jarraituz, bere adostasuna kentzekoa ere, eta horretarako eskaera idatziz egingo dio SUSTATZAILEARI indarrean dagoen legedian aurreikusitakoari jarraituz, eta eskaera helburu horretarako kasu bakoitzean adierazitako helbidera bidaliko da.

Era berean, ERABILTZAILEAK eskubidea izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa jartzeko, batez ere bere eskubideak erabiltzerik izan ez badu. Erreklamazioa idatziz egingo du eta honako helbidera bidaliko du: Jorge Juan kalea 6, 28001-Madrid. Erreklamazioa bere web-atariko egoitza elektronikoa ere egin dezake (www.agpd.es).

4.3. Aplikatzekoa den legedia

BALDINTZA OROKORRAK eta zerbitzuak eskuratzeko prozesua Espainiako legediak arautuko dituzte.

BALDINTZA OROKORREN eta/edo zerbitzuak eskuratzeko prozesuaren interpretazioan edo aplikazioan sortzen diren arazoak eskumen judizialaren arloan, eta bereziki kontsumitzaileen eta erabiltzaileen arloan, Espainian aplikatzekoak diren lege-aurreikuspenetan xedatutakoari jarraituz eskudunak diren epaitegi eta auzitegiek ebatziko dituzte.